

Gutxienez 20 pertsonaz osatutako taldeentzako ibilbideak



Ordiziako azokaren eta bere produktuen ibilbidea. Idiazabal Lurralde

Asteazkenetan egiteko ibilbidea

10:00 Ordiziara iritsi. Gidaren aurkezpena eta taldearen harrera.

10:30-11:00 Gastronomía Interpretazio Zentroaren bisita gidatua. Ordiziako azokaren sorrera eta bilakaera ezagutzeko ikusentzunezkoa.

Ondoren denbora librea azoka ezagutzeko: saltzen diren produktuak, ezaugarriak, kokapena... Idiazabal Gazta azoka honetako produktu garrantzitsuenetako bat delarik.

12:30-13:30 D'elikatuz Zentrora itzuli eta beste bi solairuak ikusiko ditugu: Goierriko Interpretazio zentroa eta Elikadura eta Nutrizioaren Interpretazio Zentroak.

Ondoren gazta dastaketa.

13:30-14:30 Goiza osatzeko Ordiziako kasko historikoaren bisita gidatua egingo dugu.

14:30 Bazkaria (Menuak begiratu)

16:30 Zaldibia aldera abiatuko gara. Bertan GOIZANE Zentroa bisitatuko dugu. Zentro hau Aralar Parke Naturalean dago, Txindoki mendiaren magalean. Zentro honetan "Aralar, baserritik begirada bat" ikusentzunezkoa ikusiko dugu.

Eguna bukatzeko produktuen dastaketa bat egingo dugu.

19:00 Bisitaren amaiera.

Prezioa pertsonako: 32 Euro*

* Prezioan (BEZ barne) sartzen diren zerbitzuak: -Museo eta Interpretazio zentruetako sarrerak -Bazkaria -Gida zerbitzua egun osoan zehar * Garraioa ez da prezioan sartzen